No queda claro si es designado entre los miembros de la Comisión o además de ellos. Parece que si tiene voz pero no voto, será además de los 9 miembros, pero quizás se podría aclarar.

- Artículo 7 f) “Designar en el plazo máximo de dos días a dos miembros de la Comisión, un profesional médico y un/a jurista, para que verifiquen si, a su juicio, concurren los requisitos ...”

Se entiende que, si se quiere utilizar un lenguaje inclusivo, la expresión “un profesional médico”, se podría sustituir por un/a profesional de la medicina.



## ERANTZUNAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Atal honetan, jasotako ekarpeni buruzko balorazioak azaltzen dira.

Zk.	Eragilea	Proposatutako testua	Balorazioa
<b>Atarikoak</b>			
19	Nafarroako Ospitaleguneko Etika Asistentzialeko Batzordeko kideak	<p>Eutanasiaren definizioa zabaltzea proposatzen dugu:</p> <p>Eutanasia da pertsona bat zuzenean eta nahita hiltzea eragiten duen jarduera, kausa-ondorio erlazio bakar eta berehalako baten bidez, pertsona horrek informatuta, berariaz eta denboran behin eta berriz hala eskatuta. Jarduketa hori egungo ezagutza medikoekin egiten da, gaixotasun edo pairamen sendaezin baten ondoriozko oinaze jasanezina dagoenean, zeina pertsonak onartezintzat jotzen baitu eta ezin izan baita arindu beste bitarteko batzuen bidez. Eutanasia gaixoa sufrimendu horretatik askatzeko egiten da, eta ongizatea emateko eta beraren borondatea errespetatzeko.</p>	<p>Ezetsi da, 3/2021 Lege Organikoan jasotako eutanasiaren definizioa kontuan hartu baita.</p>
63	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	<p>Zirriborroan zehazten da heriotza eragiten duen jarduketa egiten dela gaixotasun edo pairamen sendaezin baten ondoriozko oinazea dagoenean, zeina pertsonak onartezintzat jotzen baitu eta ezin izan baita arindu beste bitarteko batzuen bidez. Oharrak: Batzordeko kideen artean, aldez aurreko balioespenean, desadostasunak sortzen ahal dituzte puntu hauek, nekez "balioesten" eta egiaztatzen ahal baita baldintza hauek betetzen diren:a. Sufrimendua onartezina izatearen pertzepzio pertsonala. Zalantza dugu sufrimenduaren neurketa sartuko ote den jardunbide egokiaren eskuliburuan, zeina agertzekoa baita.b. Baliabide "erabilgarriak" modu bidezkoan eskuratuko diren, beste bitarteko batzuen bidez arindu ezin izanari dagokionez (zainketa aringarriak eskuratzeko aukera, kasu).</p>	<p>Eskertzekoa da gogoeta. Idazketan, kontuan hartu da Batzordean diziplina anitzetako kideak egotearen helburua dela baldintzak betetzen direla balioestea eta egiaztatzea.</p>

## II. kapitulua. Nafarroako Foru Komunitateko Berme eta Ebaluazio Batzordea

### 3. artikulua. Izaera

50	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Komenigarritzat jotzen da Nafarroako Bioetika Batzordeari kontsulta egitea edo aldeko txostena eskatzea Berme eta Ebaluazio Batzordearen eraketari eta osaerari buruz. Gure iritziz, komeni da Nafarroako Bioetika Batzordeari txostena eskatzea kideen kopuruari eta kategorizazioari eta behin betiko osaerari buruzko erabakiak babesteko.	Ezetsi da, Nafarroako Etika Batzorderik ez baitago.
----	---	---	---

### 4. artikulua. Osaera

1	Nafarroako Gizarte Laneko Elkargo Ofiziala	Hau da gure proposamena: Osasun arloko gizarte laneko profesional bat Berme eta Ebaluazio Batzorde horretako kide izatea. Legearen V. kapituluko 17. artikuluan (sortzeari eta osaerari buruzkoa), izaera administratibo eta diziplina anitzeko organo bat aipatzen da, eta mediku, erizain eta legelariez gain, beste lanbide batzuetako kideak onartzen dira.	Baietsi da, aurreikusita baitago gizarte laneko profesional bat egoteko aukera.
3	Anonimoa (2)	Uste dut artikulua honetako zehaztasun falta batzuk konpondu behar direla. 4. artikulua. Osaera. Batzordearen osaera diziplina anitzekoa da, gutxienez bederatzi kidez osatua, eta nahitaez izanen ditu: 3. Profesional bat edo bi [hala nahitaez den; izan ere edo bat da edo bi dira]	Ezetsi da, borondatezkoa baita Batzordeko kide izatea, eta prest dauden profesionalen kopuruaren araberakoa izanen baita.
4	Anonimoa (2)	Uste dut artikulua honetako zehaztasun falta batzuk konpondu behar direla. 4. artikulua. Osaera... arlo psikosozialekoak [badago definituta eremu hori?],	Ez da onartu, ez baita foru dekretu honen xede eremu psikosoziala definitzea.

5	Anonimoa (2)	Uste dut artikulu honetako zehaztasun falta batzuk konpondu behar direla. 4. artikulua. Osaera. ... bioetikan eta/edo gaixotasun larri edo sendaezinen tratamenduan prestakuntza edo lan esperientzia dutenak. [profil honetako zein profesionalak du esperientzia gaixotasunen tratamenduan? psikologo klinikoek baizik ez? Agian hobe izanen litzateke "sufirimendu larriak edo sendaezinak dituzten pertsoneri arreta ematen"]	Ezetsi da, egungo testua aberatsagoa dela ulertzen delako.
18	Anonimoa (3)	Hau da gure proposamena: Osasun arloko gizarte laneko profesional bat Berme eta Ebaluazio Batzorde horretako kide izatea. Legearen V. kapituluko 17. artikuluan (sortzeari eta osaerari buruzkoa), hain zuzen, aipatzen da izaera administratibo eta diziplina anitzeko organo bat.	Baietsi da, osaera orokorra zein den ikusi arte.
21	Nafarroak o Ospitaleg uneko Etika Asistentzi aleko Batzordek o kideak	Osaera dela-eta (testuan justifikatzen dute) , honako hauek sartzea proposatzen dugu:• Medikuntzako hiru profesional; horietako bat psikiatriako espezialista izatea komeni da.  • Erizaintzako hiru graduatu/diplomadun.  • Hiru legelari. • Eremu psikosozialeko hiru profesional (osasun arloko gizarte langilea, psikologoa, bioetikako espezialista).	Partzialki baietsi da. Medikuntzako profesionalak eta legelariak gehiago dira, betekizunak eta baldintzak egiaztatzeko prozeduran daukaten erantzukizuna dela-eta.
22	Nafarroak o Ospitaleg uneko Etika Asistentzi aleko Batzordek o kideak	5. artikulua. Izendapena.Gure iritziz, eginkizunak betetzeko behar den kualifikazioan oinarrituta baizik ez lirarteke hautatu beharko kideak.	Izendapen faserako kontuan hartuko da.
24	Nafarroak o Ospitaleg uneko Etika	Era berean, idazketa aldaketa hau proposatzen dugu "f" puntuan:  f) "Gehienez ere bi eguneko epean, batzordeko lau bi kide izendatzea, medikuntzako profesional bat, eta	Ezetsi da, Legearen agindua baita.

	Asistentzi aleko Batzordeko kideak	legelari bat, erizain bat eta arlo psikosozialeko ordezkari bat, egiazta dezaten ea beren ustez betetzen diren hiltzeko laguntza eskatzeko eta jasotzeko eskubidea zuzen baliatzeko ezarritako betekizunak eta baldintzak”.	
29	Anonimoa (4)	4. artikulua. Osaera. Bizitzaren amaieran zaintzak ematen dituzten erizainak etengabe egoten dira harremanetan pazientearekin eta haren familiarekin. Erizainen lana funtsezkoa da taldearen barruan; izan ere, harreman jarraitua eta hurbila dutenez, pazientearen, familiaren eta talde terapeutikoko gainerako kideen arteko lotura dira, eta aktiboki hartzen dute parte hiltzeko prozesua osatzen duten alderdi guztietan. Horregatik, batzordean 3 erizain egon beharko lirateke. Alternatiba gisa, 3 mediku eta 2 erizain izateko aukera planteatzen da, baina gutxienez mediku batek osasun mentalaren arloko prestakuntza izan beharko du.	Ezetsi da, legeak zehazten baitu egiaztatze taldea mediku eta legelari banak osatu behar dutela; horregatik, medikuntzako profesional gehiago daude, eta ez da baztertzen osasun mentaleko prestakuntza izatea.
35	NGAEB	Berme eta Ebaluazio Batzordearen osaerari dagokionez, NGAEBk proposatu du Berme eta Ebaluazio Batzordea osatzen dutenek gutxieneko prestakuntza izatea bioetikan eta/edo etikan, garrantzi biziki handia izanen baitute aztertuko dituzten gaiak eta beren deliberazio eta erabakiek. Horregatik, proposatzen dugu bioetika arloko prestakuntza galdegitea berariaz, eta ez ematea hura bioetika arloan lan esperientzia izatearekin ordezkatzeko aukera.	Ezetsi da, Legearen agindua aberastu baita bioetika gehitzearekin.
36	NGAEB	Proposatzen dugu 4. artikuluko 2. puntuari, zuzenbidean lizentziadunak aipatzen direnean, idazketak medikuntzako profesionalena eta arlo psikosozialeko profesionalena bezalakoa izan beharko lukeela, hau da, “Prestakuntza edo esperientzia” (ez “eta”) “osasun arloko zuzenbidean eta/edo bioetikan” (ez “eta”).	Partzialki baietsi da, eta “prestakuntza eta/edo esperientzia duena” idatzi da

37	NGAEB	Ahalik eta argien geldi dadin, proposatzen dugu zehaztu dadila pertsona batek baldintzetako bi edo gehiago betetzen baditu (adibidez, ikerketa batzordeko kide izatea eta giza zientzietan ospe handiko aditua izatea), pertsona horrekin bi baldintzak betetzat jotzen diren ala ez.	Ezetsi da, ordezkagarritasun handiagoa lortze aldera.
38	NGAEB	Batzordeburua nahiz idazkaria izendatzeari dagokionez: kontuan hartuta independentzia dela horrelako batzorde baten ezinbesteko ezaugarrietako bat, hasieratik bertatik eta justifikazio beharrik gabe, ez dirudi egokia denik kargu horiek Osasun Departamentuak izendatzea; independentziaren eta gardentasunaren onerako, proposatzen dugu Batzordeko kideek aukeratzea bai burua bai idazkaria, eta idazkaria, batetik, zuzenbidean lizentziaduna izatea, eta, bestetik, hitza eta botoa edukitzea.	Ezetsi da, Legeak ezartzen baitu osasun zerbitzu publikoek bermatu beharko dutela eskubidea.
48	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Nola aurreikusi da curriculum profesionala ebaluatzea? esperientzia urteak, bioetikan esperientzia edo prestakuntza izatea...	Ez da dekretu honen xede.
49	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Bioetikan esperientzia edo prestakuntza duten osasun arloko profesionalen gutxieneko kopurua bermatzea; izan ere, idatzita dagoen moduan (bioetikan eta/edo gaixotasunen tratamenduan esperientzia izatea), kategoria batzuk baztertuta gelditzen ahal dira. Lege Organikoan ez dago jasota bioetikan eta/edo gaixotasun larri edo sendaezinen tratamenduan prestakuntza edo lan esperientzia izatea. Hala ere, zentzuzkoa dirudi bioetikan/osasun-zuzenbidean prestakuntza edo lan esperientzia egiaztatua duten kideak egotea; izan ere, horrek areago justifikatuko luke beren eginkizunak betetzea, berez korapilatsuak baitira.	Legearen agindua aberastu da bioetikaren arloko prestakuntza gehitzearekin.
51	Tuterako	• Osaera: medikuntzako 3 profesional + erizaintzako 2	

	Osasun Barrutiko Etika Batzordea	profesional + zuzenbideko 3 profesional + arlo psikosozialeko 1 edo 2 profesional izanen dira. • Beharrezko deritzogu lanbide anitzeko osaera duela ziurtatzeari.  • Bioetika arloko prestakuntza haztatu beharko litzateke hautatzerakoan.	
52	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Genero-irizpideak kontuan hartzea (17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa).	Baietsi da, eta hau gehitu da: Batzordearen osaera genero parekotasuneko irizpideen arabera izanen da; irizpide horiek, behar izanez gero, prestakuntza eta/edo esperientzia arloko eskakizunen ondoriozko mugen mende egonen dira.
64	Nafarroak o Medikuen Elkargo Ofiziala	Berme eta Ebaluazio Batzordearen osaerari dagokionez, kontu hauek deigarriak dira:a. Erizaintzako profesionalen aurreikusitako kopurua legelariena eta medikuena baino txikiagoa izatea.b. Ez zehaztea zer prestakuntza edo esperientzia galdegiten zaien medikuntzako, erizaintzako eta eremu psikosozialeko profesionalei, “bioetikan eta/edo gaixotasun larri edo sendaezinen tratamenduan prestakuntza edo lan esperientzia” izateari dagokionez.c. Egoki deritzogu Nafarroako Foru Komunitateko Berme eta Ebaluazio Batzordean arlo psikosozialeko profesional bat edo bi sartzeari.	Batzordeko kide izan nahi duten pertsonen prestakuntza eta esperientzia hartuko dira kontuan.

## 5. artikulua. Izendapena

71	Migrazio Politiketako Departamentua	<p>Foru Dekretuaren proiektu honi dagokionez, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak bi gai ekartzen ditu, haietan ñabardura batzuk egin litezkeela ulertzen baitu:</p> <p>- 5. artikuluan hau zehazten da: “Batzordeak idazkari bat izanen du, zuzenbidean lizentziaduna. Osasunaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak izendatuko du, eta batzordearen bileretan hitza izanen du, baina botorik ez”.</p> <p>Ez dago argi Batzordeko kideen artetik izendatzekoa den ala haietaz gain hura ere egonen den. Badirudi, hitza bai baina botorik izanen ez duenez, 9 kideez gain hura ere egonen dela, baina agian argitu liteke kontua.</p>	<p>Baietsi da, eta testua aldatu da.</p>
----	---	--	--

#### 6. artikulua. Kargua uzteko arrazoiak

30	Anonimoa (4)	<p>6. artikulua. Batzordeko kideek kargua uzteko arrazoiak. Erreserbako kideen zerrenda bat ezartzea, borondatez uko eginez gero, kide berria izendatu arte denbora luzez zain egon beharrik ez izateko.</p>	<p>Kideak izendatzeko ondorengo faserako kontuan hartuko da.</p>
39	NGAEB	<p>Borondatez uko egiteari dagokionez, lanpostuan jarraitzea galdegiten da, beste bat izendatu arte. Ez dirudi hori bat datorrenik “borondatez uko egitearekin”; horrenbestez, derrigor jarraitu behar izate hori kentzea proposatzen da.</p>	<p>Ezetsi da, eskubidea bermatzeko.</p>

## 7. artikulua. Eginkizunak

23	Nafarroako Ospitaleguneko Etika Asistentzialeko Batzordeko kideak	7. artikulua. Eginkizunak. 7. artikuluko “f” letra.  Uste dugu eginkizunen ordenan, “f” letrakoa hasieran egon beharko lukeela, eta “a” puntua izan.	Ezetsi da, legea hala idatzita baitago.
25	Nafarroako Ospitaleguneko Etika Asistentzialeko Batzordeko kideak	7. artikuluko “a” letra (laugarren paragrafoa):  Kontuan hartuta gaiak duen izaera korapilatsua, eta eskatzailearekiko errespetuagatik, proposatzen dugu, salbuespen gisa, administrazioaren isiltasuna ez onartzea prestazioaren eskaeraren erantzun gisa, eta idatziz erantzun behar izatea, alde izan ala ez, gehienez ere 20 eguneko epean.	Kontuan hartuko da Batzordearen barne araudian.
40	NGAEB	Eginkizunei dagokienez, a letran: “(...) Ebazpena hiltzen laguntzeko eskaeraren aldekoa bada, Berme eta Ebaluazio Batzorde eskudunak zazpi egun naturaleko epea emanen dio zentroko zuzendaritzari, eskatutako prestazioa eman dezan, zentroko beste mediku baten bidez edo kanpoko profesional sanitarioen bidez. Hogeitun egun naturaleko epea igaro eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileek eskubidea izanen dute ezetsitzat jotzeko hiltzen laguntzeko eskaera, eta irekia geldituko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioa jartzeko aukera.” NGAEBren ustez, horrelako eskaeretan ez litzateke egon beharko administrazio isiltasunerako aukerarik, eta arrazoitutako ebazpena eman beharko litzateke beti (aldekoa edo kontrakoa izan).	Kontuan hartuko da Batzordearen barne araudian.
8	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkartea	Galdegiten dugu Nafarroan erreklamazio guztiei beti erantzuteko betebeharra jaso dadila barne araudian, jardunbide egoki gisa.	Barne araudiaren faserako jaso da proposamena.



41	NGAEB	<p>Eginkizunak: Halaber, kontuan hartuta Batzordearen barne araudia onesteko dagoela, egokia dirudi gehiengo soilez hartutako erabakiak aipatzen direnean zehaztea Batzordea osatzen duten pertsonen edo bozkatzeko unean daudenen gehiengo soila den; era berean, gutxieneko quorum bat ezarri beharko litzatekeela uste dute.</p>	<p>Barne araudiaren faserako jaso da proposamena.</p>
42	NGAEB	<p>Halaber, ez da argi gelditzen “errekusazioa” aipatzean zer alderdiri buruz ari den. Egokitzen jotzen da puntu hau argitzea eta zehaztea: (...)” Egiatzen hori, oro har, bigarren dokumentuan jasotako datuetan oinarrituta egingen da. Hala ere, zalantzarik izanez gero, batzordeak gehiengo soilez erabakitzen ahalko du anonimotasuna kentzea eta lehenbiziko dokumentua irakurtzea. Anonimotasuna kendu ondoren, kaltetuzat jotzen bada Berme eta Ebaluazio Batzordeko kideren baten inpartzialtasuna, kide horrek egiatzen hori uzten ahalko du bere borondatez edo errekusatua izanda.”</p>	<p>Barne araudiaren faserako jaso da proposamena.</p>
46	NGAEB	<p>Halaber, galdegiten zaio Komiteari, kasuak identifikatzeko modua ematen duen daturik eman gabe, publiko egin ditzala bere irizpideak, zer kasu aztertu dituen, zer eskaera onartu edo ukatu dituen, zer kasu konpondu dituen eta abar; hori guztia bere jardunaren gardentasunaren mesedetan.</p>	<p>Ezetsi da, Legeak eginkizunen artean jaso baitu “Urteko txosten bat egitea, legea dagokion lurralde eremuan nola aplikatu den ebaluatzeko, eta hura argitaratzea. Txostena osasun arloan eskumena duen organoari igorri beharko zaio”.</p>
47	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	<p>Aurreikusi al da Batzordeko kide diren profesionalen gutxieneko kopuru bat funtzionario izan behar dela? Gutxienez idazkaria? Ematen al da jakintzat? Ez da deskribatzen kideek Nafarroako Gobernuarekin zer administrazio harreman izanen duten, osasun arloko langileen kasuan: Nafarroako</p>	<p>Lanbide profila testuan araututzat jo da.</p>

		Osasun Zerbitzukoak edo beste zerbitzu batzuetakoak izan behar diren, lan harreman finkoa ala behin-behinekoa izan behar den, estatutuduna edo funtzionarioak, eta abar.	
53	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Batzordearen eginkizunen artean egon beharko luke profesionalentzako prestakuntza jarduerak sustatzea eta/edo proposatzea, hiltzen laguntzeari, komunikazioari eta laguntza emozionalari buruzko alderdi tekniko eta legalei buruz.	Ezetsi da, hori ez baita Batzordearen xedea.
54	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Eginkizun bat gehiago: g) Batzordeak eskatzen ahalko dio aholkularitza Nafarroako Bioetika Batzordeari? Horrelako kontsultak deskribatu beharko lirateke barne-funtzionamenduko erregimenean? Ez gara deliberamendu zehatzez ari, EZ (legearen kasuetan sartzen den ala ez Berme eta Ebaluazio Batzordeak berak ezarri beharko du). Aipatzen da talde teknikoei aholkularitza eskatzen ahalko diela, "jakintza arlo espezifikoetako adituak diren aldetik"; beraz, atal bat gehi liteke: dilema etiko espezifikoak badaude, Nafarroako Bioetika Batzordeari aholkularitza eskatzen ahalko litzaioke.	Ezetsi da, ez baitago Nafarroako Bioetika Batzorderik eta Legeak zehazten baititu eginkizunak.
66	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	b. Honi dagokionez: "Hogei egun naturaleko epea igaro eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileek eskubidea izanen dute ezetsitzat jotzeko hiltzen laguntzeko eskaera, eta irekia geldituko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioa jartzeko aukera." Kontuan hartu beharko litzateke pazienteak bere prozesuari buruzko informazio jarraitua jasotzeko duen eskubidea, eta ikusi ea bateragarria den bere eskaera ezetsitzat jotzeko eskubide (juridiko) horrekin. Hori izan liteke zirriborroaren 7. artikulua aipatzen duen "hobekuntza zehatzak proposatze" horren kasu bat.	Pazienteen eskubide hori arautzea ez da foru dekretu honen xede.

70	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	2.Hiltzeko laguntza ematea “testuinguru eutanasiko” batean aurreikusten da, pairamen sendaezin, kroniko eta ezintzaile baten edo gaixotasun larri eta sendaezin baten ondoriozko oinaze jasanezina dagoenean. Laguntzak pertsonalizatua, espezifikoa, egokia eta jarraitua izan behar du, eta ez dirudi laguntza kliniko egokira egokitzen denik “osasun arloko profesionalen kanpoko talde baten” bidez ematea (7. artikulua). Gainera, kontuan hartu behar da zer erantzukizun dakartzan laguntza-zentroarekin kontratu loturarik ez duten pertsonen jarduera profesionalak.	Ezetsi da, Legean hala deskribatzen baita prozedura.
72	Migrazio Politiketako Departamentua	“Designar en el plazo máximo de dos días a dos miembros de la Comisión, un profesional médico y un/a jurista, para que verifiquen si, a su juicio, concurren los requisitos...” dio gaztelaniazko testuak.  Hizkuntza inklusiboa erabili nahi bada, gaztelaniaz, “un profesional médico” esapiderearen ordean “un/a profesional de la medicina” bat jar liteke.	Onartu da, eta testua aldatu da.

#### 8. artikulua. Sekretua gordetzeko betebeharra

43	NGAEB	Sekretu-betebeharrari dagokionez, komenigarria litzateke esku hartzen duten pertsonen pribatutasuna bermatzeko neurriak ezartzearekin lotzea.	Ezetsi da, beste esparru batean arautzen baita pertsonen pribatutasuna.
----	-------	---	---

#### 9. artikulua. Araubide ekonomikoa

31	Anonimoa (4)	Batzordeko kideek ordu batzuk izanen dituzte enpresaren kargura bileretara joateko.	Ezetsi da, antolaketa eremukotzat jotzen baita.
----	--------------	---	---

44	NGAEB	Araubide ekonomikoari dagokionez, Batzordeak eginen duen lana erantzukizun handi eta konplexukoa dela ulertzen da. Horregatik, kide izateak eta bertara joateak ordainsaririk ez badu, kideek bilerak eta eztabaidak egiteko hartu behar duten denbora ordaintzeko behar besteko baimen ordainduak jasotzeko eskubidea jaso beharko litzateke, gutxienez.	Ezetsi da, antolaketa eremukotzat jotzen baita.
55	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Uste dugu zehaztu behar dela zer baliabide tekniko eta aurrekontu-baliabide erabiliko diren Batzordearen beharrei erantzuteko.	Ezetsi da, ulertzen baita 9., 10. eta 11. artikuluetan azalduta dagoela.
56	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Batzorde horretako kideek ez dute ordainsaririk izanen, baina, beren eginkizunak betetzean joan-etorriak egin behar badituzte, nola arautuko dira kalte-ordain horiek?Foru Dekretuan zehaztu liteke Batzordeko kideek beren eginkizunak betetzearen ondoriozko gastu ekonomikoren bat egiten badute, gastu horiek (joan-etorriengatik itzulketa eta abar) ekonomikoki konpentsatuko zaizkiela.	Ezetsi da, horrek biziki atzeratuko bailuke Batzordea sortzea; aurrerago arautzeko uzten da.

#### 10. artikulua. Funtzionamendua

26	Nafarroako Ospitalegunek o Etika Asistentzialeko Batzordeko kideak	Hau sartzea galdegiten dugu:  Batzordeko kideek behar beste bileratan parte hartzeko eskubidea izanen dute, eta lanpostuetatik kanpo egoten ahalko dira horretarako behar den denboran.	Ezetsi da, antolaketa eremukotzat jotzen baita.
----	--	---	---

57	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Atal hau osatzeko, gehitu beharko litzateke Jardunbide Egokien Eskuliburuan oinarritu beharko dela Berme eta Ebaluazio Batzordearen funtzionamendua. Eskuliburu hori Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluak izendatutako talde tekniko bat egiten ari da.	Ezetsi da, ez baita Foru Dekretu honen xede. Jardunbide egokien eskuliburu bat ez da loteslea juridikoki.
58	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Zein organok onetsiko du haren funtzionamenduraubidea? Nork baimenduko du? Argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean? Gure iritziz, begi bistakoa da puntu hori, baina, hala ere, ez dugu uste beharrezkoa ez denik Foru Dekretuan deskribatzea.	Ez da foru dekretu honen xede.
59	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	<p>Artikuluari hau gehitzea: Batzordeak ematen duen ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela ulertzen da, eta horren ondoren errekurtsioa jartzen ahalko da. Alderdi hori zehaztu beharko litzateke dekretuan. Legeak berariaz ezartzen du Berme eta Ebaluazio Batzordearen ebazpenak kasu hauetan errekurritzen ahalko direla:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Berme eta Ebaluazio Batzordeak izendatutako taldeak eutanasia ukatzen badu, pazienteak Berme eta Ebaluazio Batzordearen aurrean jartzen ahal du errekurtsioa, eta hark talde bat osatuko du (jatorrizko taldeko kiderik gabe) eskaera ebaluatzeko. 20 egun ditu aldeko edo kontrako txostena egiteko eta laguntza taldeari eta pazienteari jakinarazteko.</li> <li>- Azkenik, Berme eta Ebaluazio Batzordeak ukatzen badio, pazienteak administrazioarekiko auzien epaitegi baten aurrean jartzen ahal du errekurtsioa, eta epaitegiak behin betiko ebatzi beharko du beraren eskaera. Azken prozesu honek ez du eperik.</li> </ul>	Ezetsi da, legearen xede baita prozedura eta bertan zehaztuta baitago.

## 11. artikulua. Laguntza teknikoa eta administratiboa

7	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	Berme eta Ebaluazio Batzordeak unitate administratibo bat izatea laguntzeko.	11. artikuluan sartuta dagoela jotzen da.
---	--	--	---

## II. kapituluarekin lotutako beste ekarpen batzuk

6	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	Horregatik, ez luke Batzordean parte hartu behar eutanasiaren kontrako jarrera publikoa agertu duen edo haren kontrako jarrera pribatua duen inork. Batzordeko kide izendatzen diren pertsonen eginkizunek, horretan karguak dituztenak barne, legea defendatzeko eta legea betetzen dela bermatzeko konpromiso esplizitua ekarriko dute. Halaber, eratzten diren lantalde eta aholkularitza eta kontsulta organoetan parte hartzen duten profesionalek konpromiso irmoa adierazi behar dute legearen postulatuak defendatzeko. Konpromiso horiek Batzordearen barne araudian arautuko dira, eta idatziz eta sinatuta jasoko dira.	Iradokizuna onartu da, eta testuan sartu da.
10	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	Proposatzen dugu Nafarroako barne araudian jaso eta azal dadila erizainek izanen duten parte-hartzea Eutanasia arautzen duen Lege Organikoan aurreikusitako jarduketetz arduratzen den osasun arloko taldearen barruan.	Barne araudiaren faserako jaso da proposamena.
11	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	... gogorarazten dugu Administrazioaren betebeharra dela eutanasiarako eskubidea betetzen dela bermatzea. Horrenbestez, eskatzen dugu barne araudian esplizituki ager dadila administrazioak nola bermatuko duen jarraipena izanen duela kasu horretan.	Barne araudiaren faserako jaso da proposamena.



### III. kapitulua. Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen erregistroa

#### 10. artikulua. Funtzionamendua

65	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	<p>Batzordearen eginkizunei dagokienez:a. Ebazpena aldekoa bada... Zaila dirudi zentro batek osasun arloko profesionalen “kanpoko” talde batek esku hartzea “erraztea”. Komenigarria litzateke aurreikustea beharra nahiz jarraitu beharreko prozedura; eskubide bat betetzeak ez luke oztopatu behar osasun arloko profesionalaren eta pazientearen arteko harremanaren eta laguntzaren ibilbidean, ezarritako 7 eguneko epea kontuan izanik.</p>	<p>Ez da foru dekretu honen xede, jarraitu beharreko prozedurarako jasotzen da.</p>
----	--------------------------------------	--	---

#### 12. artikulua. Erregistroa sortzea

2	Anonimoa (1)	<p>Uste dut eutanasia arautzeko lege organikoak bi egoera jasotzen dituela, argi eta garbi bereizita: eutanasia eta lagundutako suizidioa. Ulertzen dut haien arteko desberdintasun nagusia dela sendatu ezin den gaixotasun bat dagoela lehenengoan, eta halakorik ez dagoela bigarrean. Horregatik, hiltzeko prozesuan laguntzeko aukera oso desberdina izaten ahal da osasun arloko profesional batentzat, lehenengo prozesuan ez baitu ikusiko konpontzeko aukerarik, eta bai, ordea, bigarrean.Uste dut jarrera desberdina izaten ahal dutela prozesu haietako bakoitzaren aurrean, eta, horregatik, iradoki nahi nuke osasun arloko profesionali aukera eman dakiela horietako bakoitza bereizita kontzientzia-eragozpena egiteko. Eta, hala, egoera batean edo bestean modu berezian laguntzea erraztea.Esker mila zuen arretagatik. Izan ongi.</p>	<p>Arautzeko jasotzen da, Ministerioaren jardunbide egokien eskuliburuarekin batera.</p>
---	--------------	--	--



32	Anonimoa (4)	12. artikulua. Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen erregistroa sortzea Erregistroak profesionalek kontzientzia-eragozpen partziala egin ahal izatea bermatu beharko du, bai eta kasu zehatzetako kontzientzia-eragozpena ere. Horretarako, erregistro dinamiko bat eratu beharko da, sarbide bizkorrekoa, profesionalek kontzientzia-eragozpena egin ahal izateko prozesuaren zati batean edo ezaugarri jakin batzuk dituzten pazienteekin (adina, patologia, gaixotasunaren fasea edo beste batzuk).	Jaso da, arautzean baloratzeko.
----	-----------------	---	---------------------------------

#### 14. artikulua. Nor inskriba daitekeen

33	Koldo Martínez Urionabarrenetxea	Legearen testuak zehazten ez badu ere, Estatuko Gobernuak ziurtatu du erizainek injektatuko dutela medikazioa; hori dela eta, proposatzen dut 14. artikulua amaieran esaldi hau gehitzea: "Horrenbestez, eutanasia moduan hiltzen laguntzeko prozesuaren azken puntua ekarriko duten farmakoa edo farmakoak emateari kontzientzia-eragozpena egiten dioten erizainak bakarrik inskribatzen ahalko dira erregistro horretan". Horrela argitzen da inork ezin izaneren diola uko egin ez eskaera jasotzeari, ez pazienteekin eztabaidatzeari...	Kontuan hartu da arautzeko, jardunbide egokien eskuliburuaren esparruan, horrek zehazten baitu zer profesionalek duen ardura laguntza hori ematean eta zer zainketa ezin diren saihestu kontzientzia-eragozle izateagatik.
60	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	Uste dugu paragrafo horrekin handitu dela kontzientzia-eragozpena eskatzen ahal duten profesionalen multzoa. Gerta liteke, kasu, osasun arloko administrari batek erregistroak egin nahi ez izatea, alde zuzenetatik egin beharreko egintza baita.	Kontuan hartuko da, Erregistroa arautzeari begira, Ministerioaren jardunbide egokien eskuliburuko gomendioekin batera.

61	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	<p>Legearen kasuan, ongi azaltzen da “hiltzeko laguntza ematen zuzenean inplikaturata” dauden osasun arloko profesionalak egiten ahalko dutela kontzientzia-eragozpena. Foru Dekretuaren idazketan, badirudi deskribatzen dela hiltzeko laguntza eman aurreko faseetako kontzientzia-eragozpena, eta ez da argi gelditzen kontzientzia-eragozpena egiten ahal zaion egin beharreko lehenbiziko izapideak hasteari paziente batek bere heriotza aurreratu nahi duela adierazi badu: adibidez, hasierako faseetan, hiltzeko laguntza emateko lehen eskaera jasotzean, baldintzak betetzen direla egiaztatzean, pazientearekin bere zaintzei eta aukera terapeutikoei buruz hausnartzean...</p>	<p>Kontuan hartuko da, Erregistroa arautzeari begira, Ministerioaren jardunbide egokien eskuliburuko gomendioekin batera.</p>
62	Tuterako Osasun Barrutiko Etika Batzordea	<p>Foru Dekretuaren idazketan aurreikusten bada hiltzeko laguntza eman aurreko kasu horiek barne hartzea, profesionalak bereiz litezke: batetik, prozesuko ezein puntutan parte hartu nahi ez duten profesionalak, eta, bestetik, hiltzeko laguntza ematean bertan parte hartu nahi ez dutenak. Bigarren multzoko profesionalen kasuan, planteatzen liteke harik eta hiltzeko laguntza jasotzeko baimen informatua sinatzen duen unera arte arreta eman diezaiotela heriotza aurreratzeko nahia adierazi duen pazienteari.</p>	<p>Kontuan hartuko da, Erregistroa arautzeari begira, Ministerioaren jardunbide egokien eskuliburuko gomendioekin batera.</p>
67	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	<p>Erregistroan inskribatzen ahalko dira hiltzeko laguntza ematearekin zuzenean inplikaturata dauden profesional sanitarioak, baldin eta ekintza beharrezkoak eta zuzenekoak egin behar badituzte, aurretik edo unean bertan, eta horiek gabe ezin bada gauzatu. Proposatzen da objektoreek ez lituzketela pazienteak baztertu behar beste alderdi batzuetan.</p>	<p>Kontuan hartuko da, Erregistroa arautzeari begira, Ministerioaren jardunbide egokien eskuliburuko gomendioekin batera.</p>

### III. kapituluarekin lotutako beste ekarpen batzuk

27	Nafarroako Ospitaleguneko Etika Asistentzialeko Batzordeko kideak	Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen erregistroa. Gure proposamena: Erregistro sistema bat, sarbide errazekoa eta urteko 365 egunetan 24 orduz eskuragarri egonen dena, edozein unetan kontzientzia-eragozpenerako eskubidea baliatzen edo ezeztatzen ahal izateko.	Baietsi da, eta testua aldatu da.
28	Nafarroako Ospitaleguneko Etika Asistentzialeko Batzordeko kideak	Hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen erregistroa. Komeni da kontzientzia-eragozpena kasuan kasukoa izateko aukera aitortzea; izan ere, apika legearen legitimitatea ez du ukatzen kontzientzia-eragozleak, baina uko egin nahi dio egoera edo kasu jakin batean aplikatzeari. Era berean, komenigarria litzateke aukera ematea kontzientzia-eragozpena egiteko farmakoa preskribatzerakoan, hura ematerakoan edo bietan.	Kontzientzia-eragozpenerako eskubidea banakakoa da. Baietsi da, eta testua aldatu da.

### Arau honen xede ez diren eta zein bere eremuan kontuan hartuko diren beste alderdi batzuk

#### Osasun arloko langileen informazioa eta prestakuntza

16	Derecho a Morir Dignamente Navarre elkarteak	Garrantzitsua da eutanasiaren legeari buruzko informazioa osasun arloko langile guztiei helaraztea, eta profesionalen kolektibo guztietara egokitzea eman beharreko prestakuntza, kasuan kasuko inplikazioen arabera. Gure laguntza eskaintzen dugu.
17	Derecho a Morir Dignamente Navarre elkarteak	Une egokia da, halaber, erabaki partekatuak hartzeko prestakuntza sustatzeko eta hura osasun arloko langile guztiei eta herritarrei hedatzeko.

## Aurretiazko borondateak

12	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	Aurretiazko Borondateen agiriaren egungo eredia lehenbailehen egokitu behar da, legea indarrean sartzen denerako eskuragarri egon dadin.
13	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	Administrazioak aurretiazko borondateen agiria sustatzeko betebeharra du. Galdegiten dugu lehenbailehen bete dadila derrigortasun hori, eta, egin litezkeen ekimenen artean, behar bezala jakinaraz dakiela osasun arloko langileei nahitaez egiaztatu behar dela dokumentu hori dagoen ala ez. Proposatzen dugu, halaber, Nafarroako osasun-zentro eta zentro soziosanitario guztietan urteko txostenak eta ikuskapenak egin daitezela aztertzeke betebehara hori betetzen den, zentroyen titulartasuna edozein izanik ere.
14	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	Adinekoen egoitza batean sartzeko diren pertsona guztiek aurretiazko borondateen agiria bete dezaten aktiboki sustatzea.
15	Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte	Aurretiazko borondateen agiriak indarrean dituzten erabiltzaileen senideek jasotako kexak direla eta, prestakuntza sustatu behar da zainketa aringarri eta tratamendua mugatzearen, sedazio aringarriaren eta eutanasiaren arteko desberdintasunei buruz, eraginpeko pertsonen eskubideak betetzen direla bermatzeko.

20	Nafarroako Ospitaleguneko Etika Asistentzialeko Batzordeko kideak	3. artikulua. Izaera, atxikipena, araubide juridikoa eta lurralde-eremua. Komenigarri deritzogu aholku erakunde nazional bat egoteari, batzorde autonomikoek horretara jo ahal izan dezaten. Erakunde horrek metodologia erkide bat betetzen dela zaindu behar du.
34	Ana Paula	Nire ustez, garrantzitsuena da profesional horiek eutanasiaren eskatzaileak adierazitako borondatea errespetatzen duten PERTSONAK izatea. Prozesuak ezin ekar dezake eskatzailearen kalbarioa eta biktimizazioa. Heriotza duinerako aukera eskaintzea da kontua, eta soil-soilik BERMATZEA hori dela eutanasia edo heriotza lagundua eskatzen duenaren borondatea eta erabakia. EZ GAITZAZUE TRATATU ERABAKITZEKO AHALMENIK EZ DUGUN PERTSONEN MODUAN.
45	NGAEB	NGAEBk aintzat hartzen du batzordeko kideek erantzukizun handia izanen dutela, eta, horrenbestez, proposatzen du dekretu honetan berariaz adieraztea eskatutako prestakuntza guztia eskaini eta emanen zaiela.
68	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala kezkatuta dago Eutanasia arautzen duen Lege Organikoa eta Foru Dekretua aplikatzean egoera konplexuak eta askotarikoak sortzen ahal direlako, pazienteekin zein profesionalekin lotuta. Araudian erabilitako terminologia nahasgarria da, eta horri ez deritza egoki. Horrela, adibidez, Foru Dekretuaren tituluak dio "hiltzeko laguntza emateko kontzientzia-eragozpenak dituzten profesional sanitarioen erregistroa"; Batzordearen iritziz, norbait kontzientzia-eragozlea izan daiteke eutanasia eta medikuek lagundutako suizidioa egiten laguntzeko, baina ezin zaio kontzientzia-eragozpenik egin pazienteei. "hiltzen laguntzeari".
69	Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	1. Proposatzen dugu Dekretuak aipa dezala bizitzaren amaieran edo oinazea dagoenean ematen diren zainketen jardunbide mediko

		<p>egokia, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legeak zehazten duen bezala. a. "Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legearen 4. artikuluko d) eta e) letretan zehazten den bezala, hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasuna babesteko oinarrizko printzipioak dira pertsona guztiek zainketa aringarri integralak eta hiltzeko prozesuan minaren eta bestelako sintoma batzuei aurre egiteko tratamendu egokia jasotzeko eskubidearen bermea, eta egiazko berdintasuna eta diskriminazio eza, hiltzeko prozesuan gizarte nahiz osasun arloko zerbitzuak jasotzerakoan."</p>
9	<p>Derecho a Morir Dignamente Navarra elkarte</p>	<p>Garrantzitsutzat jotzen dugu ardura izanen duen medikua libreki hautatzen dela bermatzea, gerta baitaiteke familia-medikuntzan edo medikuntza espezializatuan esleitu zaion profesionalarekin bat ez etortzea. Proposatzen dugu eskubide hori herritarrei oroitaraz dakiela, Eutanasia arautzen duen Lege Organikoa hedatzeko kanpainan.</p>

## Eranskina. Parte hartu dutenen taula

FORU DEKRETU HONEN PROIEKTUA EGITEKO PROZESUAN PARTE HARTU DUTENEN ZERRENDA: FORU DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ SORTZEN BAITIRA HILTZEKO LAGUNTZA EMATEKO NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BERME ETA EBALUAZIO BATZORDEA ETA HILTZEKO LAGUNTZA EMATEKO KONTZIENTZIA-ERAGOZPENAK DITUZTEN PROFESIONAL SANITARIOEN ERREGISTROA

NAFARROAKO HERIOTZA DUINAREN BEHATOKIA	NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO ETIKA ASISTENTZIALEKO BATZORDEA
	TUTERAKO ETIKA ASISTENTZIALEKO BATZORDEA
	LIZARRAKO ETIKA ASISTENTZIALEKO BATZORDEA
	CLÍNICA UNIVERSIDAD DE NAVARRAKO ETIKA ETA DEONTOLOGIA MEDIKOKO BATZORDEA
	SAN JUAN DE DIOS OSPITALEKO ETIKA ASISTENTZIALEKO BATZORDEA
	SAN MIGUEL KLINIKA
	NAFARROAKO ZAINKETA ARINGARRIEN ELKARTEA (PALIAN)
	DERECHO A MORIR DIGNAMENTE ELKARTEA
	NAFARROAKO ESKU-HARTZE SOZIALEKO ETIKA-BATZORDEA (NGAEB)
	Asun Rey Escalera
	Socorro Lizarraga Mansoa
KORONABIRUSA DUTEN PAZIENTEAK ZAINTEAREN INGURUKO ERABAKI ETIKOEI BURUZKO AHOLKU BATZORDEA	

ESKUBIDE SOZIALEN NAFARROAKO AGENTZIA	ATAL SOZIOSANITARIOA
	Administrazioko langilea: ARELLANO AYALA, MARIA JESUS - ATALEKO BURUA - TELEFONOA: 848 450128
	CARBONERO MARTINEZ, ANDRES JOAQUIN - ZUZENDARI NAGUSIA -
	PERTSONEN AUTONOMIA ETA GARAPENERAKO NAFARROAKO AGENTZIA
	Administrazioko langilea: FRANCES ROMAN, INES - ZUZENDARI KUDEATZAILEA-ZUZENDARITZA -

TELEFONOA: 848 421263
-----------------------

NAFARROAKO MEDIKUEN ELKARGO OFIZIALA
NAFARROAKO ERIZAINZAKO ELKARGO OFIZIALA
NAFARROAKO GIZARTE LANEKO ELKARGO OFIZIALA
NAFARROAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA
NAFARROAKO PSIKOLOGIAREN ELKARGO OFIZIALA
TUTERAKO ABOKATUEN ELKARGOA
LIZARRAKO ABOKATUEN ELKARGOA
TAFALLAKO ABOKATUEN ELKARGOA
IRUÑEKO ABOKATUEN ELKARGOA

OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA
OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO KUDEATZAILLETZA
NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO KUDEATZAILLETZA
TUTERAKO OSASUN BARRUTIKO KUDEATZAILLETZA
LIZARRAKO OSASUN BARRUTIKO KUDEATZAILLETZA
OSASUN MENTALEKO KUDEATZAILLETZA
NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOAREN ETA LAN OSASUNAREN INSTITUTUA

Unibertsitatea
----------------

#### **PAZIENTEEN ELKARTEAK**

Desgaitasun psikikoa duten pertsonen aldeko Nafarroako elkarte (ANFAS)
Giltzurrunetako gaixotasunei aurre egiteko Nafarroako elkarte (ALCER)
Alaiz Kulturako Kolektiboa
Erriberako desgaitasun psikikoa duten pertsonen elkarte (AMIMET)
Nafarroako Diabetes Elkarte (ANADI)
Nafarroako Urritu Fisikoen Koordinaziorako Elkarte (ACODIFNA)
ANASAPS - Osasun Mentalerako Nafarroako Elkarte
ANL, Laringektomizatuen Nafarroako Elkarte
HAUR MINBIZIDUNEN NAFARROAKO ELKARTEA (ADANO)
Fibrosi kistikoaren kontrako Nafarroako elkarte
Nafarroako Down sindromearen Elkarte
AFAN-Alzheimerra pairatzen dutenen ahaideen Nafarroako Elkarte
Iruñeko Klub Koronarioa
Bizkarrezur bifidoaren eta hidrocefaliaren Nafarroako Elkarte (ANPHEB)
Crohn-en Eritasuna eta Kolitis Ultzeraduna dutenen Nafarroako Elkarte (ACCU)
Nafarroa Retina Elkarte (ARN)
Nafarroako Kalte Zerebralaren Elkarte (ADACEN)



Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarte (SARAY)
ADEMNA, Esklerosi Anizkoitzaren Nafarroako Elkarte
Nafarroako Parkinson Elkarte (ANAPAR)
Nafarroako Zeliakoen Elkarte
AFINA-Fibromialgiaren Nafarroako Elkarte
Arreta-defizita, Hiperaktibitatea eta Inpultsibotasuna Tratatzeko Nafarroako elkarte (ADHI)
Eunate-Entzumen-defizita duten pertsonen senideen eta lagunen elkarte
Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkarte (ANELA)
ATENA fundazioa
Lizarrerriko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte (AMIFE)
Nafarroako Fenilzetonuria eta metabolismoko beste akats batzuek eragindako gaixotasunen elkarte (ANAPKU)
ADNHa duten Erriberako pertsoneri eta haien familiei laguntzeko Nafarroako elkarte (ANDAR)
Nafarroako Urritu Fisikoen IBILI Elkarte
FRIDA, Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Nafarroako Elkarte
COCEMFE
ASNAEN, Eritasun neuromuskularren Nafarroako elkarte
Mejorana Elkarte
Nafarroako gibel transplantatuen eta gaixoen elkarte (ATEHNA)
Erbi-ezpaina edota ahosabaiko pitzadura nozitzaileen eta ahaideen Nafarroako elkarte (ALAFINA)
Luciérnaga (Asperger-en sindromea dutenen eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituztenen familien elkarte)
Nafarroako Autismoaren Elkarte (ANA)
Nafarroako Gaixotasun arraroen edo ezohikoen taldea (GERNA)
Bortzirietako Guztiok Taldea
Hiru Hamabi, Haurren Hartutako Kalte Zerebraleko Elkarte
Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarte (ANEL)
Asociación Nacional de Behcet-en Nafarroako Ordezkaritza
INCLUYE, GIZARTE EKIMENEN SOZIALIZATZE MIKROKOOPERATIBOA
Iruñeko Klub Koronarioa
SARE
HIESaren Aurkako Nafarroako Batzordea
ADONA
ADACEN
GOIZARGI
“EL ABC QUE SALVA VIDAS” ELKARTEA
AECC
Besarkada Elkarte

## BIDALITAKO MEZU ELEKTRONIKOAK

Buenos días, como miembros del Observatorio de la muerte digna, os informamos del inicio del plazo para las aportaciones en relación al Proyecto de Decreto Foral por el que se crea la Comisión de Garantía y Evaluación de la Comunidad Foral de Navarra prevista en el artículo 17 de la Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, de regulación de la eutanasia y se crea el Registro de profesionales sanitarios objetores de conciencia a realizar la prestación de ayuda a morir, en desarrollo de la Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, de regulación de la eutanasia.

Os rogamos lo hagáis extensible a vuestros Comités, y a quienes consideréis de interés.

El plazo para las aportaciones finaliza el día 30 junio, y la información estará disponible previsiblemente desde el día 10 en gobierno abierto

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos?>

[field\\_propuestas\\_titulo\\_value=&field\\_legislatura\\_tid=1985&field\\_departamento\\_gn\\_tid\\_entityreference\\_filter=458&field\\_tipo\\_propuesta\\_tid\\_1=All&field\\_propuesta\\_estado\\_tid=All&=Aplicar](https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos?field_propuestas_titulo_value=&field_legislatura_tid=1985&field_departamento_gn_tid_entityreference_filter=458&field_tipo_propuesta_tid_1=All&field_propuesta_estado_tid=All&=Aplicar)

Cualquier cosa, estamos a vuestra disposición, un cordial saludo, agur bero bat.

**Servicio de Ciudadanía Sanitaria, Aseguramiento y Garantías**

Dpto. de Salud (Gobierno de Navarra)

C/ Amaya, 2 A 3ª planta

31002 - Pamplona

☎ 848.423511 - 848.423528

✉ [ciudadania.herritartasuna@navarra.es](mailto:ciudadania.herritartasuna@navarra.es)



Servicio de Ciudadanía (Dpto. de Salud)

Gerencia Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea; Atención Primaria SNS-O Gerencia); Gerencia Complejo Hospitalario de Navarra (CHN); + 4 -

09/06/2

Comisión de Garantía y Evaluación y se crea el Registro de profesionales sanitarios objetores. la Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, de regulación de la eutanasia

📧 Mensaje reenviado el 10/06/2021 13:06.

Buenos días, os informamos del inicio del plazo para las aportaciones en relación al Proyecto de Decreto Foral por el que se crea la Comisión de Garantía y Evaluación de la Comunidad Foral de Navarra prevista en el artículo 17 de la Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, de regulación de la eutanasia y se crea el Registro de profesionales sanitarios objetores de conciencia a realizar la prestación de ayuda a morir, en desarrollo de la Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, de regulación de la eutanasia.

Os rogamos lo hagáis extensible a quienes consideréis de interés.

El plazo para las aportaciones finaliza el día 30 junio, y la información estará disponible previsiblemente desde el 10 de junio en el siguiente enlace:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos?>

[field\\_propuestas\\_titulo\\_value=&field\\_legislatura\\_tid=1985&field\\_departamento\\_gn\\_tid\\_entityreference\\_filter=458&field\\_tipo\\_propuesta\\_tid\\_1=All&field\\_propuesta\\_estado\\_tid=All&=Aplicar](https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos?field_propuestas_titulo_value=&field_legislatura_tid=1985&field_departamento_gn_tid_entityreference_filter=458&field_tipo_propuesta_tid_1=All&field_propuesta_estado_tid=All&=Aplicar)

Cualquier cosa, estamos a vuestra disposición, un cordial saludo, agur bero bat.

**Servicio de Ciudadanía Sanitaria, Aseguramiento y Garantías**

Dpto. de Salud (Gobierno de Navarra)

C/ Amaya, 2 A 3ª planta

31002 - Pamplona

☎ 848.423511 - 848.423528

✉ [ciudadania.herritartasuna@navarra.es](mailto:ciudadania.herritartasuna@navarra.es)



Comisión de Garantía y Evaluación y se crea el Registro de profesionales sanitarios objetores. la Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, de regulación de la eutanasia

📧 Mensaje reenviado el 09/06/2021 17:03.

Buenos días, en cumplimiento de la recientemente aprobada Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo, de regulación de la eutanasia, se está procediendo a la creación de la Comisión de Garantía y Evaluación de la Comunidad Foral de Navarra, y del Registro de profesionales sanitarios objetores de conciencia a realizar la prestación de ayuda a morir, a través del correspondiente Decreto Foral.

Se ha iniciado el plazo para las aportaciones a través del portal de Gobierno Abierto, por lo que os rogamos hagáis extensible esta información a quienes consideréis de interés.

El plazo finaliza el día 30 junio, y la información estará disponible previsiblemente desde el 10 de junio en el siguiente enlace:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos?>

[field\\_propuestas\\_titulo\\_value=&field\\_legislatura\\_tid=1985&field\\_departamento\\_gn\\_tid\\_entityreference\\_filter=458&field\\_tipo\\_propuesta\\_tid\\_1=All&field\\_propuesta\\_estado\\_tid=All&=Aplicar](https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos?field_propuestas_titulo_value=&field_legislatura_tid=1985&field_departamento_gn_tid_entityreference_filter=458&field_tipo_propuesta_tid_1=All&field_propuesta_estado_tid=All&=Aplicar)

Cualquier cosa, estamos a vuestra disposición, un cordial saludo, agur bero bat.

**Servicio de Ciudadanía Sanitaria, Aseguramiento y Garantías**

Dpto. de Salud (Gobierno de Navarra)

C/ Amaya, 2 A 3ª planta

31002 - Pamplona

☎ 848.423511 - 848.423528

✉ [ciudadania.herritartasuna@navarra.es](mailto:ciudadania.herritartasuna@navarra.es)

**Iruñean, 2021eko uztailaren 2an**

**Sinadura jatorrizkoan dago**

**Genoveva Ochando Ortiz**

**Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuko zuzendaria**